



BALIO PROPOSAMENA

Lehen esan bezala, gure asmoa lehengai birziklatuekin bitxiak ekoiztea da. Gure bezeroei, kalitatezko produktuak saltzeaz gain, prezio jasangarriak ere eskeiniko dizkiegu. Horrela, beste enpresetatik bereizten gaituena, planeta errespetatzeko dugun konpromisoa da. Gainera, ez da oso ohikoa lehengai birziklatuekin bitxiak ikustea, beraz, gure enpresak arrakasta izateko aukera ikusten dugu. Orain banan-banan deskribatuko ditugu gure produktuek ekarriko dituzten onurak:

Aldaketa klimatikoa hobetzea

Gaur egungo arazo bat aldaketa klimatikoa da eta arazo honi aurre egiteko, gure enpresako produktuak material birziklatuekin egingo ditugu. Produktuak egiteko lehengai gisa material birziklatuak erabiltzeak, aldaketa klimatikoaren egoera hobetzeko lagungarria izateaz gain, gure enpresarentzat ere onuragarria da, izan ere, lehengaietan ez dugu gastu handirik izango eta beraz, gure bezeroei prezio jasangarri batean eskaini ahal diezazkiekegu produktuak.



Bezeroak aldaketa klimatikoaren arazoaren aurrean kontzientego izatea

Puntua hau, aurrekoarekin lotuta dago, hau da, aldaketa klimatikoarekin. Gure helburua, bezeroak arazo honen aurrean jarrera kontzienteago bat edukitzea da eta proiektu honekin helburu hori lortuko dugula pentsatzen dugu. Azken finean, denen artean lortuko dugu egoera honi aurre egitea.

Kalitatezko produktuak sortzea

Gure bezeroei kalitatezko produktuak eskainiko dizkiegu, izan ere, gure ustez oso garrantzitsua da bezeroei kalitatezko eta prezio oneko produktuak eskaintzea. Horrela, gure proiektua aurrera eramatez gain, bezeroekin harreman ona izatea lortuko dugu.

Kutxadurarik ez sortzea

Puntu hau, beste puntuekin erlazionatuta dago. Produktu birziklatuak erabiliko ditugunez, ez dugu kutxadurarik sortuko eta onuragarria izango da planetarentzako. Horregatik, bezeroak guri ordaintzeko prest egongo direla pentsatzen dugu.

➤ Beraz, laburbilduz, gure enpresak diseinu berritzaileak eta prezio onekoak eskainiko dizkie bezeroei. Horretaz gain, ingurugiroaren aldeko ekintzak burutuko ditugula ziurtatzen dugu.

